

ZOZKETAREN OINARRIAK

2019KO OTSAILEKO ONLINE BANKA KANPAINAREN OINARRIAK ALEXA ZERBITZUAZ HORNITURIKO OIHAL GRIS ILUNA DUTEN BIGARREN BELAUNALDIKO 20 ECHO BOZGORAILU ADIMENDUNEN ZOZKETA

1. - Erakunde antolatzailea eta saria

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok -aurrerantzean LABORAL Kutxa-, helbidea Arrasaten (Gipuzkoan) -Jose Maria Arizmendiarieta, zk.g., 20500- duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du. Hain zuzen, Alexa zerbitzuaz hornituriko bigarren belaunaldiko 20 Echo bozgorailu adimendun zozkatuko ditu, oihal gris iluna dutenak.

2. - Zozketaren esparrua eta doakotasuna

1991ko azaroaren 8ko 4/1991 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duenak, ezarritakoari jarraikiz antolatu da zozketa, eta doakoa izango da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

3. - Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Sustapenaren aldian, 2019ko otsailaren 7tik martxoaren 31ra bitartean, Online Bankan sartzen diren 18 urtetik gorako bezeroek, pertsona fisikoak direnek, hartuko dute parte zozketan. Online Bankan sartzen direnean, zozketarako partaidetza bat eskuratuko dute. Zozketatik kanpo geratuko dira zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak, baita, LABORAL Kutxaren iritziz, sustapen honetan iruzurrez jokatzeko dutenak ere. Irabazleak, saria jasotzeko eskubidea galdegin ahal izateko, egunean eta positiboan izan behar ditu entitatearekin kontrataturiko produktuak edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Horrela ez bada, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

4. - Zozketa

Zozketa apirilaren 8an egingo da, ausazko sistema informatiko bidez, ezarritako epean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean. Gainera, zozketan ordezeko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere. Entitatearen datu-basean gordetako bezeroaren datuak erabiliz saridunarekin harremanetan jartzerik ez badago zozketa-dataren hurrengo 10 egun baliouduneko epean, saria ordezekoentzat izango da, zozketan ateratako hurrenkerari jarraikiz.

5. - Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

Elektronikoki edo telefono bidez emango da sariaren berri. Honako hau izango da 20 saridunetako bakoitzarentzako saria: Alexa zerbitzuaz hornituriko bigarren belaunaldiko echo bozgorailu adimendun bat, oihal gris iluna duena.

6. - Sariaren zerga-sistema

Saria indarreko PFEZri buruzko araudiaren mende dago eta dagozkion zergak ordaindu beharko dira. Sariaren eragin fiskala irabazlearen kontura izango da, eta LABORAL Kutxak bere gain hartuko ditu zerga-administrazioaren aurrean dagokion atxikipen- eta informazio-betebeharrak.

7. - Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, baimena emango dio LABORAL Kutxari, saridun den aldetik, bere izen-abizenak argitaratzeko, entitateak zozketa ezagutarazteko egoki deritzen argitalpen edo baliabide telematikoetan. Bestela, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoiari emango zaio.

8. - oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita zozketa geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere. Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok <https://www.laboralkutxa.com/eu/sustapenak-eta-zozketak> orrialdean kontsulta daitezke.